



**2016KO URTARRILAREN 8KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko urtarrilaren zortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2015eko abenduaren 18an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2015eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 101 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HAMABOST MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (115.327,27 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZ EGINDAKO KONTRATAZIOAK.-**

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak hainbat kontraturen luzapenaren berri eman du. Kontutan izanda Udal hau kontratu horietara atxikituta dagoela, eta beraz kontratu horien esparru akordioetatik eratorritako kontratuak izenpetuta dituela, eta bestalde, kontratu horien luzapenaren aldeko txostena egin dela, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ondorengo kontratu hauen luzapena onartzea erabakitzen du:

- Bizitza aseguru eta istripu kolektiboen aseguru, Generali España de Seguros y Reaseguros enpresarekin, beste urte betez.
- Gas naturalaren hornikuntza, Endesa Energia S.A.U. enpresarekin, beste urte betez.
- Berogailurako C motako gasoilaren hornikuntza, Noroil S.A. enpresarekin izenpetutako kontratua, 2014ko azaroaren 21etik aurrera Repsol Directo S.A.U. enpresarekin jarraitzen dena, beste urte betez luzatzea.
- Funtzio anitzeko ekipoen horniketa eta mantenua, Sistemas de Oficina de Gipuzkoa S.L. enpresarekin, beste urte betez luzatzea.
- Ibilgailuen aseguru estaldurak, Bilbao Compañía Anonima de Seguros y Reaseguros S.A. enpresarekin, beste urte betez luzatzea.



- Suteen eta intrusioaren aurkako sistemen mantentze zerbitzua, Babesa Suzai S.A. eta Area 7 S.L. enprekin, beste urte betez luzatzea.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



*[Handwritten signature in blue ink]*